

LITERATURA. Ikasmaterial izateko diseinatua badago ere, edozein literaturzalerentzat datu-base interesgarria da

‘Euskal Literatura Idatzia’ CD-ROMa plazaratu du Ikastolen Elkarateak

Euskal literatura idatziaren ikuspegi orokorra ematen du, testu, argazki, marrazki, kantu eta bideo-lanen bitartez

Juan Luis Zabala | DONOSTIA

Euskal Literatura Idatzia izeneko CD-ROMa aurkeztu zuen atzo, Donostian, Ikastolen Elkarateak. Euskal literaturari buruzko informazio orokorra biltzen du CD-ROMak eta, ikasleentzako material gisa diseinatua dagoen arren —bigarren hezkuntza eta batxilergorako—, interes handikoa izan daiteke edozein literaturzalerentzat. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren EIMA programaren diru laguntza jaso du Ikastolen Elkarateak lan hau egiteko, eta emaitza 5.000 pezetan salgai dago merkatuan (200 libera inguru).

CD-ROMeko datu eta testuek bi oinarri nagusi dituzte: batetik, Koldo Izagirre eta Xabier Mendiguren Elizegiren *Euskal Literaturaren Antologia* (Elkarlanean-ek eta Ikastolen Elkarateak 1998an kaleratua); bestetik, Joan Mari Torrealdairen *Euskal Idazleak*, *Gaur* (Jakin, 1977) eta *Euskal Kultura Gaur* (Jakin, 1996). Baina beste liburu batzuk ere erabili dituzte CD-ROMaren egileek iturri gisa.

Iñaki Lekuonak zuzendu du egitasmoa; Josune Gerekaren ardura izan da zuzendaritza teknikoa; edukiaren koordinazioaz eta proiektuaren aholkularitza Lurdes Otaegi arduratu da; bideo-lanak Jabier Larrañagak zuzendu ditu. Guztira, 15etik gora izan dira, eta arlo askotakoak, egitasmoa gauzatzen lan egin duten profesionalak.

‘Ahozko Euskal Literatura’ CD-ROMa, egiten hasia

Hasierako proiektua *Euskal Literatura* izeneko CD-ROM bat egitea bazen ere, gaia zabalegia izaki, egitasmo horretatik azkenean bi CD-ROM aterako dira: *Euskal Literatura Idatzia*, atzo aurkeztua; eta *Ahozko Euskal Literatura*, jada egiten hasia.

Gereka eta Otaegirekin batera, Ikastolen Elkarteko lehendakari Antonio Camposek eta Ramon Saizarbitoria idazleak hartu zuten parte aurkezpenean. Euskal literaturak bezala, ikastolak profesionaltasuna eta militantzia uztartu eta «berezikia» izan behar duela esan zuen Saizarbitoria, eta zorionak eman zizkion Ikastolen Elkarteari produktu berriagatik.



Lurdes Otaegi, Josune Gereka, Antonio Campos eta Ramon Saizarbitoria, atzoko aurkezpenean.

Hamaika atal, hamaika aukera

CD-ROMaren pantaila nagusian, hamaika aukera aurkezten zaizkio erabiltzaileari. Hona hemen, labur deskribatua, horietako bakoitzean zer aurkituko duen:

HISTORIA. Mendez mende, XVI. mendetik hasi eta XX. mendeko gerra ondora bitarte, politika, ekonomia eta gizartearen berri ematen da. Baita euskararen eta euskal literaturaren egoeraren berri ere.

AUTOREAK. 50 poetaren eta beste horrenbeste prosagileren biografiak biltzen dira, egilearen irudi banarekin batera. Biografiak zein irudiak Koldo Izagirre eta Xabier Mendiguren Elizegiren *Euskal Literaturaren Antologia* liburutik ekarriak dira. Atal honetan aukera dago *Testuak* ataleko testuetan sartzeko ere.

TESTUAK. Autoreak ataleko egileen testuak daude, egilearen irudi baten ondoan beti. Urdinez agertzen diren *hitz beroetan* klik eginez gero hitz horien adiera ageri da beheko koadroan. Testuen aukeraketa Izagirre eta Mendigurenen liburukoa da.

HAMAIIKA GAI. Hainbat gai euskal literaturan izan duten tratamenduaren eta bilakaren laburpen bat ageri da; honako

hauek hain zuzen ere: *Euskararen kezka*, *Paisaia*, *Exilioaz*, *Artzainak*, *Zuhaitzak*, *Amodioaren prismak*, *Dantza*, *Nekazariak*, *Zezenketak*, *Emakumeak* eta *Itsasoaz harindiak* zer? Ageri diren *hitz beroen* bidez, *Testuak* ataleko testuetara eta beste testu eta informazio batzuetara sartzea dago.

BALIABIDEAK. Literatur lanetan erabiltzen diren baliabide nagusien deskribapenak ageri dira, hainbat adibideekin ilustratuak eta hiru sailetan bereziak: fonikoak, semantikoak eta sintaktikoak.

GENEROAK. Literatur generoen konbentzioen berri ematen da. Honako genero hauek bereizi eta definitzen dira: *Dramatika*, *Lirika*, *Prosa ez narratiboa* eta *Prosa narratiboa*.

MUGIMENDUAK. Mendebaldeko literatura mugimendu nagusien berri ematen da, euskal literaturako adibideekin: *Berpizkundera*, *Barrokoa*, *Ilustrazioa*, *Erromantizismoa*, *Errealismoa*, *Ohiturazaletasuna*, *Sinbolismoa*, *Errealismo soziala*, *Abangoardia*, *Surrealismoa* eta *Errealismo magikoa*.

AUTORE GUZTIAK. Euskal 550 idazleren fitxa bana dago, honako elementu hauekin osatua: irudia; jaiotze data eta lekua; eta 1999a bitarteko bibliografia. Joan Mari Torrealdairen *Euskal Idazleak*, *Gaur* eta *Euskal Kultura Gaur* liburuak dira fitxategiko oinarri nagusia, baina 1996tik 1999a bitarteko datuak erantsita. Idazle batzuen

datuak, hala ere, Linda Whiteren *Escritoras vascas del siglo XX* artikulutik hartuak dira.

MAPA. CD-ROMeko informazio guztia erraz erabili eta aurkitzen laguntzen duen mapa kontzeptual bat da, bi ardatz nagusiren arabera moldatua. Kronologia eta genero literarioak.

AUDIOAK. Hamaika abesti biltzen dira, euskal poesia kantu bihurtuaren eredu eta erakusgarri: Bordaxuriren *Galerianoren kantuak* Pantxo eta Peioren ahotsen, Lizardiren *Asaba zaharren baratza* Antton Valverdekin emana, Mikel Azurmendiren *Euskadin Castillan bezala* Imanolek kantatua, Xabier Lete *Xalbadorren heriotzean* kantatzen, Mikel Laboa Joxean Artzeren *Txoriak txori...*

BIDEOTEKA. 26 bideo-lan labur biltzen dira, horietatik 16 CD-ROMerako beren-beregi ekoitzi eta grabatuak. Batzuetan idazleak ageri dira, zein bere obrari buruz mintzatzuten: Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Arantxa Urretabizkaia, Lourdes Oñederra... Beste bideo-lan batzuetan, berriz, errezitazioak: Luis Baraizarrak *Fra Bartolome Santa Teresaren testu bat irakurtzen du*, Piarres Xarriton Axularren *Gero* liburuko zati bat, Bitoriano Gandiagak *Lurra artu dut poema*, Bernardo Atxagak *Bizitza bizitza da*, Lourdes Oñederrak *Eta emakumeak sugeak esan zion nobelako zati bat...*